

JULIUS ERWING AIREAN FLOTATZEN, LEKUKOTZA SUBLIME BATEN GRAZIA

Ross Gayren «Be Holding» poemaz

LITERATURA Mikel Zubimendi Berastegi

Ross Gay estatu-batuar poetak poema liburu berria atera du. “Be Holding” du grazia eta haria 1980ko NBAko final bateko gertakari zalapartatsu batetik hartu du. Julius *Dr. J* Erwingen *baseline scoop* gogoangarrian, hain zuzen. Saskibaloiairen historiako jokaldi mitikoenetakoa hartu eta etikaren inguruko galdera larri batean eraldatu du, edo zehatzago, lekukotzaren etikaren inguruko galdera batean.

Ez dela begiratzearekin konfunditu behar ohartarazten digu Gayk, espektakulutik alden du behar garela, Dr. J-ren hegaldiarekin batera haragituagoa den beste zerbaitean parte hartzeko: lekuko izan.

Lekuko, baina ez bakarrik gure begiekin, baita gure birika, esku eta ezpaineekin ere, lekuko.

Dr. J-ren jokaldi gorenaren aurrean, erori eta altxatu, airean flotatzen duen atletarekin poetak sublimea denaren aurrean harritzeko, hunkitzeko, ahozabalik geratzeko proposa-

tzen digu. *Baseline scoop* jokaldiak, baina, zer du sublimea? Poetarentzat, espontaneotasuna, dotorezia, gertagaiztasuna. Edo bere beste hitz batzuetan esanda, beste gizon beltz bat fusilatua edo espetxeratua izateko aukeraren kontra, hortxe altxatzen

Julius Erwing, 1970eko eta 1980ko hamarkadetan Philadelphia 76ers taldeko hegaleko mitikoa. GAUR8

da, hor dago Julius Erwing, probabilitateak eta grabitatea bera desafiatuz, momentu batez behintzat bai.


Jokalari beltzaren mate indartsu eta biszeralaren ikusle baino, poetak fintasunaren eta graziaren lekuko egiten gaitu. Eta gizon beltzean estereotipo basatia edo jasan dituen terroreak ikusi baino, bat-bateko grazia, eta garbi-garbia, daku-sagu. Dr. J-k saskirako bidea itxita dauka, joko zelaitik kanpo hegan egin behar du, taula barrikada bat da, eta defentsak zain dauzka. Eta oztopo guztion aurrean, bere saskiratzea burla bat da, arrazismoaren langa eta topeei egindakoa.

OBSESIO POETIKO INDUZITUA

“Be Holding” poema bakarreko liburua insomnia gauetako kreatura bat da. Youtuben jokaldia behin eta berriz ikustean sortzen den kontzientziaren fluxua balitz bezala idatzia dago. Poeta itxuraz garrantzirik gabekoa dirudien gertakizun baten –saskiratze bat, bi puntu gehiago– ikusle baino, lekukoa da. Ikonikoa da unea, Dr. J-k aukera guztiak desafiatu zituelako. Jauziarekin altxatu egiten da, igo egiten da, flotatzen du, sakratua denaren itxurako zerbait haragituz.

Dr. J-ren jokaldi gogoangarriarekin obsesio poetiko induzitua bizi du Ross Gayk. Eta obsesioa galdera egiten du: «Noiz, nola eroriko da bere jokaldi hegaldaritik?» Finean, “Be Holding” ikerketa hori da: sublimea bistan daukagunean edo ekintza krudelen aurrean, nahi gabe, nola jartzen garen arnasestuka ikertzen du.

Bilaketa edo meditazio liriko bitxi batekin, Ross Gay poetak Dr. J-ren ezinezko mugimendu hori, estatu biolentzia eta ja-goletzarekin, beltzen bizitza



eta irauteko ahalmenarekin lotzen du. Eta poemak galde-tzen du imajinazioak, edo gure begiradak, nola eraman gaitza-keen besteengandik gertuago, besteekin konektatzea zoriona bezalako zerbait izan dadin.


Muinean eta forman bakarra den lan honetan, sentimenduen inguruko ikerketa asko dago. Bere subjektuak islatzen duen flotatzeko grazia- ren gainekoa. Lekuko gara, in- posiblearen lekuko. Aurrekaririk ez daukanaren le- kuko. Gure begien aurrean ipi- ni digu Dr. J-k, naturaren logi- ka eta legeak desafiatur.

“Be Holding” liburuak poe- siak eman dezakeen horren in- guruan –zentzu literario eta holistikoa– hausnartzera bul- tzatzen du. Saskibaloio jokala- riaren keinu arina hartzen du eta hegaldi horrekin batera, historia pertsonal eta komuni- tarioaren birrikak zabaltzen di- tu, mundu honetako zorion, ikara eta biolentzia guztia ka- bitu ahal izateko.

AMODIO KANTUA BAINO GEHIAGO

Julius Erwingek, 1970eko eta 1980ko hamarkadetan Phila- delphia 76ers taldeko hegale- koak, kantzak gobernatu zi- tuen kondairazko saskibaloio jokalaria da. Poetak amodioz- ko kantua egin dio. Baina atle- ta bikainari egindako oda bai- no gehiago da. Youtuben “Dr. J’s iconic Baseline Scoop” bide- oa milaka aldiz jarraian ikusi duela aitortzen du. Eta buruz daki jokoaren historiako he- galdia izan dena, magia betez- ko mugimendua.

Nola Dr. J eskuinetik abiatu zen uztairantz, nola aurrena Mark Landsbergerren defentsa gainditu zuen, eta, gero, Kare- em Abdul-Jabbar mitikoaren 2,18 metroak bidea ixten ziote- la ikusita, nola taula pasatuta



ikusi zuen bere burua. Ross Gayk badaki kondizio norma- letan, beste edozeinekin ezere- zean bukatuko litzatekeela jo- kaldi saiakera. Baina, ez. Dr. J-k esku batekin baloia hartu, tau- laren atzetik airean flotatzen iragan, Abdul-Jabbarren defen- tsa irrigarri utziz, eta nola kan- poko marraren gainetik, aire- an beti, uztai pasatuta, taulara bota zuen. Bera eta mundua txunditu zuen doto- rezia batekin.

Hori guztia buruz daki. Bai- na “Be Holding” saskibaloiaz aritu arren –jokaldi zehatz bat Youtuben errepikatu eta be- rrepikatuta–, beste zerbaitez ere badihardu: nola begiratu eta nola izan begiratua. Nola izan daitekeen begirada min- garria, biolentzia eta nola dai- tekeen arretatsua, oroimen eta maitasunezkoa. “Be Holding” izenburuak hobeki esplika- tzen du: nola begiratzen dio-

Dr. J-ren «baseline scoop» jokaldia, Los Angeles Lakers taldeko Mark Landsberger eta Kareem Abdul-Jabbar mitikoaren 2,18 metroak gainditzien.
GAUR8

gun elkarri, nola besarkatu be- har genukeen elkar, nola gau- den bata bestearekiko zordun.

ZABALTZEN DEN ESKUSOINUA

Youtuben, Julius Erwingen jo- kaldi magikoaren mugimendu osoak bi minutu eta erdi har- tzen ditu, eta mugimendu ho- rrek berorrek liburu oso baten tamainako poema behar du gertatzeko. Jakina poetek den- borarekin nahi dutena eta nahi bestetan egin dezaketela,

eta noski denbora hiltzea bai- no krimen arrunt, poetiko eta legitimoagorik ez dagoela, bai- na poema honek ahalmen ho- ri muga-muga eder batera era- maten du, eta, gainera, arin, esfortzurik gabe.

Julius Erwingen hegaldiare- kin batera, poema honek den- boran bidaiatzen du, baina ez istorio lineal bat kontatzeko. aldiberekotasun sentsazio bat sortzeko baizik. Denbora guz- tiak daude orainean, konekta- tuta, eta gu, irakurleok, iragan diren denbora horiekin guztie- kin konektatua gaude.

Zabaltzen ari den eskusoi- nua da. Minutu batean gaude NBAko 1980. urteko finalean eta hurrengoan hondartzan, eta hondartzatik bertatik ikus- ten dugu esklaboak dakartzan itsasontzia, eta Dr. J-ren jokaldia da pisua arintzeko itsasora botatzen zituzten esklaboen hegaldia.

Poeta itxuraz garrantzirik gabeko gertakizun baten –saskiratze bat, bi puntu– ikuslea baino, une ikonikoaren lekukoa da: Dr. J-k aukera guztiak desafiatu ditu eta flotatu egiten du

Saskibaloio jokalariaren keinu arina hartzen du eta hegaldi horrekin batera, birrikak zabaltzen ditu, mundu honetako zorion, ikara eta biolentzia guztiak kabitut ahal izateko